Honen bidez jakinarazten da 2026ko apirilaren 1ean «Uliazpi Fundazioa» foru organismo autonomoaren lehendakariak E/2026-49 ebazpena eman duela, honela diona:

"Uliazpiko 2025. urteko lanpostuen zerrendan 2 mediku plaza sortu ziren, biak derrigorrezko 3. hizkuntza eskakizunarekin.

Lanpostuak era finkoan betetzeko hautaketa prozesua amaituta, bat bete zein baina bestea hutsik geratu zen. Izatez, prozesuan soilik 3 izangaik parte hartu zuten, eta horietatik bik bakarrik zuten 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatua.

Geroztik horiek betetzeko saiakera egin da, lehenik eta behin beste Administrazio Publikoei lan-poltsak eskatuz, ondorengo emaitzarekin:

- Gipuzkoako Foru Aldundia: inork ez zuen eskaintza onartu.
- Eusko Jaurlaritza: agortuta.
- Osakidetza: agortuta.
- Bizkaiko Foru Aldundia: agortuta.
- IFAS: agortuta.

Jarraian, Lanbiden lan-eskaintza argitaratu da, 2026ko otsailaren 20tik martxoaren 20ra, hautagairik jaso gabe.

Egoera honen aurrean, erabiltzaileen osasun arreta bermatzeko muturreko neurriak hartzeko beharra dago, euren hizkuntza eskubideak ahaztu gabe.

Horretarako, Osakidetzako Zuzendari Orokorraren 3/2016 jarraibidea hartu dugu oinarritzat. Jarraibide horretan ezarri zen derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna igarota duen plaza bat hizkuntza-eskakizun hori duten langileekin bete ezin denean eta, gainera, plaza betetzea ezinbestekoa denean, plazak eskaini ahal izango zaizkiela lanpostuan eskatzen den hizkuntza-eskakizuna ez dutenei. Kontratazioan lehentasuna emango zaie eskatzen den hizkuntza-eskakizuna baino lehenagokoa

Por la presente se notifica que con fecha de 1 de abril de 2026 la presidenta del organismo autónomo foral «Fundación Uliazpi» ha adoptado la siguiente resolución E/2026-49, que dice así:

"En la relación de puestos de trabajo del año 2025 de Uliazpi se crearon 2 plazas de médico/a, ambas con perfil lingüístico 3 preceptivo.

Finalizado el proceso selectivo para la provisión fija de las plazas, una de ellas quedó vacante. De hecho, en el proceso sólo participaron 3 aspirantes, de los cuales únicamente dos tenían acreditado el perfil lingüístico 3.

Desde entonces se ha trabajado para su cobertura temporal, solicitando en primer lugar bolsas de trabajo a otras Administraciones Públicas, con el siguiente resultado:

- Diputación Foral de Gipuzkoa: nadie aceptó la oferta.
- Gobierno Vasco: agotado.
- Osakidetza: agotado.
- Diputación Foral de Bizkaia: agotado.
- IFAS: agotado.

A continuación se publicó la oferta de empleo en Lanbide, del 20 de febrero al 20 de marzo de 2026, sin haber recibido ninguna persona candidata.

Ante esta situación, es necesario adoptar medidas extremas para garantizar la atención sanitaria de las personas usuarias, sin olvidar sus derechos lingüísticos.

Para ello hemos tomado como base la Instrucción 3/2016 del Director General de Osakidetza. donde se estableció que cuando no sea posible la cobertura de una plaza con perfil lingüístico preceptivo vencido mediante personal que esté en posesión de aquél y además sea imprescindible la cobertura de la plaza, podrán ofertarse los puestos a personal que no esté en posesión del perfil lingüístico requerido en la plaza. Se dará preferencia en la contratación a quienes estén en posesión del perfil lingüístico anterior al exigible,

SINA5fbc44ca-9257-418f-99e6-39dba3c0deff

dutenei, horrela gehiago bermatzen baita erabiltzaileei arreta euskaraz jasotzeko aukera.

Neurri hau ez da berria gure erakundean, zaintzaileen lan-poltsen irizpideetan ere salbuespeneko neurri bera xedatzen baita.

Kontuan izanda mediku lanpostuaren eginkizunak gauzatzeko ezinbestekoa dela 3. hizkuntza eskakizun maila edukitzea, hori baino gutxiago duten hautagaiei elkarrizketa egingo zaie euskarazko arreta emateko gai direla bermatzeko.

Salbuespen hau onartuta, berriz ere lan-poltsetara joko da eta inork lan-eskaintza onartuko ez balu, Lanbiden iragarkia ipiniko da. Azken kasu honetan, mediku plazak betetzeko hautaketa prozesuaren oinarrietan jasotako merituak baloratuko dira (GAO, 2025/04/14).

Noski, hautaketa prozesuan zehar 3. hizkuntza eskakizuna duen hautagairik parte hatuz gero, berak izango du lehentasuna lanpostua egikaritzeko ezinbesteko gaitasun guztiak betetzen baititu.

Hori dela eta, espedientean dagoen dokumentazioa kontuan izanda, lehendakari honek

EBAZTEN DU

Lehena.- Ezinezkoa bada mediku lanpostua aldi baterako eran bete horretarako nahitaezkoa den 3. hizkuntza-eskakizuna duen langileen bidez, eskakizun hori ez duten hautagaiei eskaini ahal izango zaie.

Hizkuntza-eskakizun altuena egiaztatuta duten pertsonek lehentasuna izango dute, lanpostuan jarduteko ezinbestekoak diren ezagutzak betetzetik gertuago baitaude.

Bigarrena.- Nolanahi ere, erabiltzaileei arreta euskaraz jasotzeko eskubidea bermatze aldera, izangaiei elkarrizketa egingo zaie, derrigorrezkoa den hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izan ez arren

dado que así se garantiza más la posibilidad de las personas usuarias a ser atendidas en euskera.

Esta medida no es nueva en nuestra entidad, ya que los criterios de las bolsas de trabajo del personal cuidador establecen la misma medida excepcional.

Teniendo en cuenta que para el desempeño de las funciones del puesto de médico/a es imprescindible tener un nivel de perfil lingüístico 3, se entrevistará a aquellas personas candidatas que tengan un perfil inferior para garantizar su capacidad de atención en euskera.

Aceptada esta excepción, se volverá a acudir a las bolsas de trabajo y si nadie aceptara la oferta de empleo, se publicitará en Lanbide. En este último caso, se valorarán los méritos establecidos en las bases del proceso selectivo para la provisión de plazas de médico/a (BOG 14/04/2025).

Lógicamente, en el caso de que durante el proceso selectivo participara alguna persona candidata con perfil lingüístico 3, esta tendrá preferencia al reunir todas las aptitudes imprescindibles para el desempeño del puesto.

En su virtud, teniendo en cuenta la documentación obrante en el expediente, esta presidenta

RESUELVE

Primero.- Cuando no sea posible la cobertura temporal del puesto de médico/a mediante personal que esté en posesión del perfil lingüístico 3 preceptivo para aquel, podrá ofertarse al personal que no esté en posesión de este.

Tendrán prioridad las personas con el perfil lingüístico más alto acreditado, dado que están más cerca del cumplimiento de los conocimientos imprescindibles para ejercer el puesto de trabajo.

Segundo.- En todo caso, con el fin de garantizar el derecho de las personas usuarias de ser atendidas en euskera, se entrevistará a las personas candidatas para garantizar que, aun no teniendo el

SINA5fbc44ca-9257-418f-99e6-39dba3c0deff

arreta euskaraz emateko gai dela bermatzeko, era horretan hizkuntza-eskubideei buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoa betetzeko.

perfil lingüístico preceptivo acreditado, es capaz de ofrecer la atención en euskera y cumplir así lo establecido en la normativa en vigor sobre derechos lingüísticos.

Hirugarrena.- Dauden lan-poltsak agortzen badira eta Lanbidera joan behar bada, zerbitzua emateko ezinbestekoa den euskara ezagutza maila egiaztatua izatea eskatuko ez dela kontuan hartuta, mediku plazak betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarrietan ezarritako merezimenduak baloratuko dira (GAO, 2025/04/14).”

Tercero.- En el caso de agotar las bolsas existentes y tener que acudir a Lanbide, teniendo en cuenta que no se exigirá la acreditación del conocimiento de euskera imprescindible para dar el servicio, se valorarán los méritos establecidos en las bases del proceso selectivo para ocupar las plazas de médico/a (BOG, 14/04/2025).”

Ebazpen hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek ebazpen honen aurka zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita BI HILABETEKO epean.

La presente resolución es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO ante la Sección de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal de Instancia de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su notificación.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko lehendakari honi, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita HILABETEKO epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante esta presidenta, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Donostian, sinaduraren datan.— Pedro María Ugartemendia Garro, «Uliazpi Fundazioa» foru organismo autonomoaren kudeatzailea.

En San Sebastián, a fecha de la firma.— El gerente del organismo autónomo foral «Fundación Uliazpi», Pedro María Ugartemendia Garro.

EKS | CSV: SINA5fbc44ca-9257-418f-99e6-39dba3c0deff
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	JE49 Medikuak aldi baterako eran HE salbuespena
CSV/EKS:	SINA5fbc44ca-9257-418f-99e6-39dba3c0deff

Sinatzailea 1 / Firmante 1: 15999187L PEDRO MARIA UGARTEMENDIA (R: Q7050001B)
Kudeatzailea - Uliazpi Foru Erakunde Autonomoa
Data / Fecha: 2026/04/08 11:36:32